



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

PRENTSARAKO OHARRA

2018/02/01

Batzar Nagusiek aho batez onetsi dabe Kongresuari GIBa gaixotasun infekto-kutsagarri moduan hartzea barrero aztertzeke eskaria egitea

Bizkaiko Batzar Nagusietako Iraskunde, Gobernu On eta Gardentasunerako Batzordeak aho batez onetsi dau gaur goizean Talde Mistoak aurkeztu dauen Arauz Besteko Proposamena, Diputatuen Kongresuari legedia barrero aztertzeke eskatzeko, GIB bidezko infekzioa gaixotasun infekto-transmitigarri moduan hartua izan daiten, gaixotasun infekto-kutsagarri moduan hartua izan beharrean. Aldaketa horren zergaitia, gaixotasun hori daukien pertsonen bazterketea saihestea da.

Ekimena Euzko Abertzaleak, Euskal Sozialistak, Podemos Bizkaia eta EH Bildu taldeek eta Talde Mistoak aurkeztu dabe, eta Talde Popularrak be bat egin dau. Talde guztiak ados etorri dira, GIBa ez daiten zuzenean transmitiduten dan gaixotasun infekto-kutsagarri moduan hartua izan, gripeagaz edo tuberkulosiagaz gertatzen dan moduan. Kontuan izan behar da GIBa transmitiduteko bide bakarrak sexuala (babes bako hartu-emonak), odola (odolaren eta haren eratorrien bidez) eta perinatala (amarengandik seme-alabarengana) dirala. Infekto-kutsagarri moduan hartzeak, gaur egun, bazterketa larria eragiten dau GIBa daukien pertsonentzat, administrazinoko lanpostuetatik baztertuta geratzen diralako eta zerbitzu publiko batzuetara heltzeko gaiztasunak daukiezalako.

IBILGAILU OFIZIALAK

Beste alde batetik, ez da onetsi Talde Mistoak aurkeztu dauen Arauz Besteko beste Proposamen bat, Aldundiko goi karguek ibilgailu ofizialez egiten daben erabilerea hobetuko dauen azterlana egiteko. Ekimenak Foru Gobernua eusten daben taldeen kontrako botoak, Podemos Bizkaiaren abstentzinoa eta Talde Popularraren eta EH Bilduren aldeko botoak jaso ditu. Proposamenari ezetza emon deusien taldeen berbetan, eginda dago daborduko ibilgailu ofizialen erabilerea arrazionalizetako eta murrizteko prozesua, eta eskatu dan azterlanak beharrezkoa ez dan gastua eragingo leuke.

Euzko Abertzaleak eta Euskal Sozialistak taldeek azpimarratu dabenez, %43 murriztu da ibilgailu ofizialen erabilerea, eta 43.000 euro baino gehiago aurreztu dira kontzeptu horretan.

Proposamena aurkeztu dauen Arturo Aldecoak, ibilgailu ofizialen eta gidarien beharren gaineko azterlana eskatzen eban, horren ondorioz erabilerea hobetzeko. Talde Popularreko Javier Ruizen eretxiz, ibilgailu ofizialak “larregi” erabilten dira, eta bere esanetan, hori ez dator bat “Rementeria jaunak agintaldiaren hasieran iragarri eban politikea egiteko modu barriagaz”. EH Bilduko Joseba Gezuragak azpimarratu dauenez, beharrezkoa da Foru Aldundiak daborduko horren gaineko azterlanen bat egin dauen ala ez jakitea, eta erantzuna baiezkkoa bada, horren ondorioak ezagutu behar dira. Neskutz

Rodriguez Podemos Bizkaia taldearen ordezkariak galdetu dau benetan beharrezkoa ete dan Aldundiko goi karguek holango zerbitzua eukitea.

NOTA DE PRENSA

01/02/18

Las Juntas Generales aprueban por unanimidad solicitar al Congreso que se revise la consideración del VIH como enfermedad infecto-contagiosa

La Comisión Institucional, Buen Gobierno y Transparencia de las Juntas Generales de Bizkaia ha aprobado esta mañana por unanimidad una Proposición No de Norma que insta al Congreso de los Diputados a revisar la legislación, de manera que la infección por VIH pase a estar considerada como enfermedad infecto-transmisible en lugar infecto-contagiosa. El objetivo de esta modificación es evitar la discriminación de las personas portadoras de esta enfermedad.

La iniciativa partía de los grupos Nacionalistas Vascos, Socialistas Vascos, EH Bildu, Podemos Bizkaia y Grupo Mixto, y a ella se ha sumado el Grupo Popular. Todos se han mostrado de acuerdo en que el VIH deje de ser considerado una enfermedad infecto – contagiosa como la gripe o la tuberculosis, que se transmite por contacto directo. Por el contrario, las únicas vías de transmisión del VIH son la sexual (relaciones sin protección), la sanguínea (a través de la sangre y sus derivados) y la perinatal (materno-filial). La consideración infecto – contagiosa supone, en el momento presente, una discriminación grave de las personas portadoras en cuanto a exclusión de puestos de trabajo en la administración y dificultades de acceso a algunos servicios públicos.

VEHÍCULOS OFICIALES

Por otra parte, ha sido rechazada una Proposición No de Norma del Grupo Mixto para la realización de un estudio que optimice el uso de vehículos oficiales por parte de altos cargos de la Diputación. La iniciativa ha contado con el rechazo de los grupos que sustentan al Gobierno Foral, la abstención de Podemos Bizkaia, y el apoyo de Grupo Popular y EH Bildu. Según los grupos que han rechazado la propuesta, ya ha habido un proceso de racionalización y reducción en el uso de los vehículos oficiales, y la realización del estudio solicitado supondría un gasto innecesario. Nacionalistas Vascos y Socialistas Vascos han subrayado el hecho de que se ha reducido en un 43% el uso de vehículos oficiales y se han ahorrado más de 43.000 euros por este mismo concepto.

Arturo Aldecoa, como representante del grupo proponente, solicitaba la realización de un estudio técnico de necesidades y la consecuente optimización en el uso de vehículos y chóferes. Javier Ruiz, por parte del Grupo Popular, ha calificado de “excesivo” el uso de vehículos oficiales y ha subrayado la contradicción que supone con “la nueva forma de hacer política anunciada por el señor Rementeria al inicio de su mandato”. Por parte de EH Bildu, Joseba Gezuraga ha hecho hincapié en la necesidad de conocer si la Diputación

Foral ha realizado ya o no un estudio al efecto, y en caso afirmativo que se hagan públicas sus conclusiones. La representante de Podemos Bizkaia, Neskutz Rodríguez, se ha preguntado por la necesidad real de que los altos cargos de la Diputación dispongan de este tipo de servicio.